



Lau emakume erasotu ditu Biarritz Olympique emakumezkoen errugbi taldeko masajistak

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 09/04/2025

Iazko irailean eta urrian izan ziren sexu-erasoak eta asteartean atxilotu zuten gizona.

Erasoak joan den irail eta urrian gertatutakoak dira. Serge Blanco emazteen taldea kudeatzen duen afizionatuen elkarteko presidenteak azaldu du hainbat jokalaria kexatu zirela fisioterapeutaren portaerengatik. Erasoen biktimak urte hasieran lau salaketak jarri zituzten eta emazteen errugbi taldeko fisioterapeuta atxilotu zuten asteartean, sexu erasoengatik.

Atzo goizean deklaratu zuen Baionako Auzitegian, eta behin-behinean aske utzi dute, kontrol judizialpean. Masajista lanetan aritzeko debekua ere ezarri diote. Irailaren 9rako deitu dute epaiketa, Baionako Auzitegian.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/lau-emakume-erasotu-ditu-biarritz